

BIMARRA ARROSA

Oso gaztea izanda
haurdun geratzeak nola
aldatzen du bizitza? 20



MILAR LARRAMENDI

- sukaldea aldatzera zoaz?
- babes ofizialeko etxea tokatu zaizu?



sukalde eta etxetresna
elektrikoetan
eskaintza zabala



sukaldea eta etxetresna
elektrikoak erosteagatik,
22"-ko LCD SAMSUNG bat **opari**



IKUS ITZAZU GURE ERAKUSKETAN. LIBURUTEGI ONDOAN

Milar Larramendi · Xabier Munibe, 11 · Julio Urkijo, 16 · Azkoitia · Tel. 943 85 18 97

uztarria

Argitaratzailea. Uztarrria

Komunikazio Taldea. Azpeitia

Egoitza. Perez Arregi plaza 1, behea, (Azpeitia, 20730)

Telefona eta faxa. 943 15 03 58

Posta elektronikoa.

uztarria@topagunea.com

Posta kutxa. 227, Azpeitia

Lege gordailua. SS-860/2000

Zenbakia. 126.a (2011ko martxoa)

Urtea. XIII.a (1999ko azaroan sortu)

Maiztasuna. Hilabetekaria

Diseinua. Eregi Komunikazio eta

Euskara Zerbitzuak

Publizitatea. 685 730 792 /

oalegria@uztarria.com

Bazkidetza. 943 15 03 58

Tirada. 2.500 ale hilero

Inprimategia. Leitzaran Grafikak

Azaleko argazkia. A. Agirrezabala

Web orrialdea.

www.uztarria.com

Uztarrria herri aldizkariaren

laguntzaileak (erakunde publikoak)



Gipuzkoako
Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Uztarrriak

Bai Euskarari

Oharra. Uztarrria

Komunikazio

Taldeak ez du

bere gain hartzen

herri aldizkarian

adierazitako

esanen eta

iritzien

erantzukizunik



2011KO MARTXOKO UZTARRIA ALDIZKARIAN ZER?



16

iritzia

Inkesta. San Jose
jaietan joango al zara
Loiolara? **13**

mamia

Klik! Lau azpeitiar
Saharan, eguzki-plakak
eta ordenagailu-gela
muntatzen **16**

Unai Iparragirre.

Errepideko denboraldi
hasi berriari gogotsu
ekin dio **04**

Sokamuturra. Tradizio
horri buruzko
dokumentala egin du
Enekoitz Esnaolak **24**

jakiteko

Begoña Aizpuru.

Itsasin dantza erakutsi
eta trajeak josi ditu
25 urtean **34**



24




04

Ba aL dakizu denbora gutxi barru
uztarria.com-ek webgune berritua
izango dueLa? **Uztarrria**

egin zaitez bazkide Uztarrrian

943 15 03 58

Herri aldizkariak gain, Uztarrriaren produktuak ere eskuratuko dituzu. Uztarrria Komunikazio Taldeak orain arte **12 liburu** (behekoak), **CD 1** (ondokoa) eta liburuxka biografikoak atera ditu. Bazkideak baino ez ditu jasotzen, urteko kuota barruan.



1.157 bazkide
gara dagoeneko Uztarrrian;
eskerrik asko denei.

30 euro dira urtean.
117.000 euroko aurrekontua du
Uztarrriak 2011. urterako.



Liburuxka biografikoak. Julian Bereziartua, Leo Etxeberria, Valentina Agirre, Amaia Garmendia (Uztarrriak liburuxka gehiago aterako ditu)

UNAI IPARRAGIRRE

txirrindularia

“Orain ziklismoa gaizki ikusita dago”

Afizionatu mailan bosgarren denboraldia beteko du aurten. Ilusioz ekin dio erronkari, inguruko zenbait kontuk etsipen puntu bat sortu arren. 📝👁️ Mailo Oiarzabal

Errepideko denboraldiaren hastapenetan, Eссор Basque-ren lehen etapan hamargarren egin ondoren egon da Uztarriarekin Unai Iparragirre Txipa. Taldekide duen Ander Garmendiarekin batera, bera da azpeitiar ordezkari afizionatuen pelotoian. Garaipenak eta merituko postuak ez ditu falta palmaresian, baina profesional izatearen ametsa garesti dago.

Denboraldiko helburuak zehaztuta al dituzu ja?

Gutxi gorabehera bai. Taldean banatu egin gara, bakoitza indartsu noiz egon daitekeen kontuan hartuta. Niri hasiera honetan nahiko fuerte egotea tokatu zait, neguan pistan ibili naizelako. Gero Nafarroako Itzulirako, uda

aldera, tokatuko zait denboraldiko sasoi-aldirik onena edo.

Pista egitea ohikoa al da zuretzat neguan?

Orain dela bi urte hasi nintzen. Taldean esan zidaten neguan zerbait egitea komeni zitzaidala. Hemengo entrenatzaile batek, Joxe Mari Garmendiak, animatu ninduen. Gauzak oso ondo joan zaizkit gainera, eta orain urtero egiten dut. Joan den urtean Espainiako selekzioarekin Europako Txapelketetan izan nintzen, brontzeko domina bat irabazi nuen Espainiako Txapelketan, eta gustura.

Bidelan Kirolgi taldean jarraituko duzu. Gustura?

Aurten hirugarren denboraldia beteko dut Bidelanen. Aurreneko bi urteak Belca taldean egin ni-

|||DATUAK|||||||

|||**Jaio.** 1988ko uztailaren 25ean.

|||**Herria.** Azpeitia. |||**Bizi tokia.** Azpeitia. |||**Lanbidea.**

Momentuz, eta profesionala ez izan arren, txirrindularitza, hortik bizitzea “ezinezkoa” izan arren.

tuen, baina urtero korritu nuen lasterketaren bat Bidelanekin, utzita. Beti babestu izan naute, lagundu behar didatenean asko laguntzen didate, eta pozik nabil. Txirrindulari gehienak euskaldunak gara; Kantabriako bat eta Valladolidedeko beste bat ditugu aurten, baina gainontzeko guztiak bertakoak gara.

Profesionaletarako aukerarik izan al duzu?

Kontu zaila da. Azkeneko bi urteak behintzat onak egin ditut, beti hor. Talderen batzuekin ibili naiz

harremanetan, baina oraindik... Jende asko gabiltz eta gutxi pasatzen dira, zaila da gora igotzea.

Orain dela urte batzuk baino zailagoa al dago jauzia ematearena?

Horrenbeste gabiltz hor aurrean... Nire ustez urtetik urtera jende gutxiago pasatzen dute, eta gero eta gazteagoak, gainera. Orduan, ez dakit, gu igoal tartean gelditzen gara, ezta?

Beldurra, ‘linbo’ horretan geratzeko?

Bai. Gainera, askok esaten didate emaitza aldetik-eta nik erakutsi dudala, aukera bat emateko adina, baina... Gero, Euskal Herrian, igoerretarako jendea nahi izaten dute. Ikuskizuna eskalatzaila ematen dutela diote. Es-



printerroi edo ordekan ondo ibiltzen garenoi gehiago kostatzen zaigu hemen nabarmentzea.

Txirrindularitzak gero eta tiradizio gutxiago al dauka gaztetxoan artean?

Bai, datuei begiratu besterik ez dago. Adibidez, Azkoitiko Elortza Peñan ume pila bat izaten ziren. Pelotoian ere, Gipuzkoan, 200 bat izaten ziren; eta orain ehunera ailegatu ezinda ibiltzen dira. Prentsak ere asko eragiten du. Orain ziklismoa gaizki ikusita dago.

Ezin pasatu dopinaz galdetu gabe. Barrutik, nola ikusten dira kontu horiek?

Irteten diren berri denak kalterako dira. Bakarren batek positibo ematen badu, eta begiratu Contadorren kasua, ia urtebete luza-tzen da kontua. Prentsa dirua egiten ari dela iruditzen zait niri. Gero UCI dago [nazioarteko federazioa], erabakiak inorekin kontsultatu gabe hartzen dituenak. Gauzak ez dituzte ondo eramaten, eta kontua oso gaizki dago.

Txirrindularitzaren munda ez al da ari bere buruari harrika?

Bueno, ez dakit. Batek positibo ematen badu, denak haren kontra jartzen gara. Esaldi bat bada, ezta: makarroiekin eta espaguetiekin bakarrik egin al daiteke Tourra? Positibo izan ala ez, hor muga batzuk daude. Azkenean, gorputza zerbait bajatzen bazai-zu, errekuaratzeko zeozer hartzen da. Muga horien barruan bazabiltz, ondo dago; hortik pasatzen dena da positibo. Orduan,

makarroiekin bakarrik ez, baina legezko produktuekin bai. Hartuko dutela? Ba bai, azaldu egiten dira eta. Baina nik uste dut sekula baino garbiago dagoela txirrindularitza. Azaltzen den bakoitza, ordea, gero eta gehiago zabal-tzen da.

Baina Tourra irabazten duen ia bakoitzak positibo ematen du orain...

Bila joaten direlako, batik bat. Tourra irabazten duenak, edo lider dihoan batek, egunero pasatzen ditu kontrolak. Orduan, haren bila dihoaz. Azken finean beraiek ateratzen dira galtzen, baina...

Prentsa txar hori, positiboak... Jendea zuen kirolera animatzeko biderik onena ez dira ba izango.

Alde batetik, umeak errepidera atera beharra, gero eta trafiko gehiagorekin. Eta, gainera, telebistan beste konturik ez badute ikusten... Hori bultzatzeko beste bide batzuk bilatu behar dira.

Zer dauka hain ederra txirrindularitzak? Zer eman dizu zuri?

Elkarren arteko pike hori, eta norbere burua gainditzea, batik bat. Txirrindularitza superazio bat da. Garbi ibiliz gero, gainera, jendeak ere asko estimatzen zaitu. Ni behintzat asko betetzen nau egiten ari naizenak, eta beti hobetzeko gogoarekin.

Nola ikusten duzu etorkizuna?

Neure zalantzak badituz. Gurea jakina da, profesioaletara pasatzea ala ez pasatzea. Iaz utzi edo ez ibili nintzen, baina aurtan behintzat bizikletara dedikatuko naiz. Gauzak ondo badijoaz nik jarraitu egingo dut. Gustura nabil, eta pistarako aukera ere hor daukat, oso polita, Espainiako selekzioan sartuta-eta zerbait egiteko. Bitartean, errepideko denboraldirako ilusioz. Gogoarekin, behintzat, eta hori horrela den bitartean, segitu egingo dugu.✱

“Esprinterroi gehiago kostatzen zaigu hemen nabarmentzea”

“Gustura nabil, eta pistarako aukera ere hor daukat, polita”

Ignazio deitzearen garrantzia

Oscar Wilde dramaturgoak bere antzezlanean Ernestogatik esaten zuen bezala, badirudi Azpeitian Loiolako Iñigoren izena izan dela garrantzia handikoa. Dirudenez, izen horrek horrelako azpeitiar kutsua ematen zion bati eta izen konposatuetan batik bat oso ohikoa zen bigarren aukera bezala. Horrela 1781-1790 hamarkadan Azpeitiko gizonezkoen ia %53 Ignazio izenez bataiatu zituzten. Baina gure herrian izena bezain garrantzitsua izan da gaitzizena.

Urteko festarik adarjotzaileenak datozen honetan gure herrian, eta ingurukoetan ere, hainbesteko ohitura izan duen gaitzizenen kontua aipatzera natorkizue beraz oraingoan. Inauteriek beti ematen dute aukera gure urte osoko egunerokotasunarengatik iseka egiteko, eta ein batean, baita ere gure izaeragatik ere. Festa horietan herritarren ohitura adarjotzailea oso agerian gelditzen da eta horren adierazle da baita ere gaitzizenen kontua.

Iada XVII. mendean gure herriko lehen gaitzizenen erreferentzia aurkitu dezakegu, usadioaren aintzinako tradizioa agerian utziz. Gaur egun adarra jotzeko funtzioa izan dezakeen arren, lehen izena bezain garrantzitsua zen gaitzizena. Askotan elizan batek zituen izen ofizialak alde batera utziz gaitzizena ziren gaur egungo identitate txartelaren funtzioa betetzen zutenak. Eta zer izaten zen kontutan gaitzizena jartzerakoan? Ba, dirudenez, baten ogibidea, bizilekua, itxura fisikoa eta horrelakoak ziren gaitzizena jartzerakoan oinarri bezela hartzen zirenak.

Gaitzizena horrela *Pepa la bilbaina*, *Zeama* edo *Donoxi* izan zitezkeen batzutan edo baita ere *Tabaquero*, *Luis errementaria*, *barbero*... Itxura fisikoa bazen oinarria berriz *Txikia*, *Zabala*, *Motrallu* eta horrelakoak aurkitzen genituen. Ziur beste hainbeste eta gehiago aurkituko genituela historian zehar baina zerrenda amaitu ezina izango litzateke. Bitxikeria bezala aipatu kontzeptu eta tresnekin erlazio zuten gaitzizena ere izan direla



■■■■■■■■■■markel mendizabal■■■■■■■■■■

■ ■ ■ Egia da gaitzizena gero eta gutxiago erabiltzen direla, batik bat gazteen artean

gure herrian, besteak beste *Burdingela*, *Kutxillo*, *Prakatzuri* eta horrelakoak.

Gaurkotasunik bai?

Gaurkotasuna du gure herrian gaitzizenen kontu honek baina egia da gero eta gutxiago erabiltzen direla, batik bat gazteen artean. Oraindik ere ohizkoa da zaharrenek galde-tzea ea bat zer familitakoa den, eta gaitzizena izateak erraztu egiten du askotan baten identifikazioa herritar bezela. Gaitzizenek gainera herritartasun zaharraren erakusle dira kasu askotan, azpeitiar zaharra edo betikoaren ziurtagiri garbia. Lehen Gaztelan gertatzen zen bezala *cristiano viejo* modura.

Gure herria eta ingurukoak hain esanguratsu egin dituen ohitura hau mantentzeak izan dezakeen garrantziaren eztabaidan sartu gabe ezin ukatu izendatzeak nabarmentzea dakarrela askotan, bakoitzak gizartean duen kokalekua zehaztuz. Inauteriek hori alde batera uzten saiatzen badira ere ez da beti lortzen eta holakoetan, eta bereziki moztorra gauean gertatu ohi den bezala, halako batean norbaitek dio: "Hi alaiz ba?" Nortasuna beti agerian, ala komeriak.✱



urrategideko

altzariak & sukaldeak



círculo
muebles



- Sukaldeak
- Sofak
- Haurren logelak
- Armairuak
- Egongelak
- Koltxoiak
- Logelak
- Bainuak



1. SOLAIRUAN GAUDE

ARRETXE KALEA 9 - 1. SOLAIRUA
20730 AZPEITIA (GIPUZKOA)
TEL. 943 85 72 44 · FAX. 943 85 13 14
urrategideko@urrategi.eu
www.mueblesurrategi.es



Plantaren plantak

Gailetak. Paketea ireki eta beste poltsatxo bat du, eta haren barruan banaka bilduta daude beste poltsatxo batean. Bada poltsa eta papera, eta bada zaborra. Gero eta zabor gehiago erosten dugu; eta, beraz, gero eta zabor gehiago sortzen dugu.

Eta bi eredu kontrajarri. Ez da berria, batez ere, Gipuzkoan, zaborren kudeaketarako bi eredu kontrajarri borrokan ari direla. Alde batetik, orain arte bezala sortu eta jaso zaborra, eta Zubietan egiten hasiko diren errausketa plantan erretzeko jarrera dago. Eta, bestetik, birziklapena eta hainbat herritan abian jarri den atez ateko zabor biltzea bultzatzen da.

Jasangarri hitza modan jarria da azken urteotan. Dena izan behar omen du jasangarria. Hori diote politikariek batean eta bestean. Gero, ordea, ekintzetan koherentzia falta zaie, asko eta askori. Gure eguneroko kontsumoa ez baita jasangarria, inondik inora ere.

Zaborrak, nora?

2008ko ekainetik dago Azpeitian gai organikoak bereizteko 5. edukiontzia sistemaz. Garai horretantxe ireki zuten Lapatzeko konpostaje planta. Iazko abenduan, edukiontzi horren hedapenean lan egiteagatik hitzarmena sinatu, eta 50.000 eura jaso zituzten Azpeitia eta Azkoitiako Udalek Foru Aldunditik (atez ateko biltzea duten herriek ez dute xentimorik jasotzen). Hitzarmena sinatze horretan hitz ederrak erabili zituzten sinatzaileek; birziklatu egin behar dela, etxeko konpostajea eta 5. edukiontzia erabilera bultzatu behar direla, herritarrok kontzientzia egin behar dugula birziklapenaz...

Eta hara! Orain datuak. Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoak egindako PIGRUG planaren arabera, 2009an Gipuzkoan 29.000 tona hondakin organiko tratatzeko azpiegiturek eraikita egon behar zuten. Lapatzeko konpostajea, Sasetan eta Zal-



ihintza agirretxe


III Terrorismoaren biktimak
gogoratzeko eraikitako
lorategia Lapatzeko
konpostarekin ondu dute

dunbordan beste bi konpostaje-planta egitekoak ziren. Baina Foru Aldundiaren arabera, ez da beharrezkoa; Lapatz nahikoa omen da. Auskalo nola, baina Lapatzeko planta handituko omen dute gaur egungo beharretara egokitzeko. Baina niri, gaur gaurkoz, zenbakiak inondik inora ez didate irteten.

Lapatz da Gipuzkoako konpostaje-planta bakarra, eta urtean 2.500 tona hondakin kudeatzeko ahalmena du. Iaz, Gipuzkoan, 4.004 tona hondakin organiko bildu ziren. Nire kalkuluek ez dute irteten.

Aurten, berriaz, 7.000 tona jasotzea aurreikusten da, hainbat herritan abian jarritako atez ateko biltzarekin asko handitu baita hondakin organikoaren biltzea. Eta Lapatzek 2.500 tona jasotzen segitzen du. Birziklatu, birziklatu, birziklatu... esan herritarrei. Eta jasangarria, jasangarria eta jasangarria sartu beren diskurtsoetan politikariek... eta Zubietan errauste planta eraiki.

Baina lasai, Donostian eraikitako terrorismoaren biktimak gogoratzeko egin berri duten Oroitzapenaren Lorategia Lapatzeko konpostarekin ondu dute.✱





Tuko

Laguntek, S.L.

Harzubia hiribidea 51
Tel.: 943 15 14 41
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)

Larunbatetan goiz eta
arratsaldez irekita

- ⇒ Heldu eta ezinduentzako laguntzak
- ⇒ Ebakuntza ondorengorako laguntzak
- ⇒ Suaren aurkako arropak
- ⇒ Ohe artikulatuetan aukera zabala
- ⇒ Bainugelarako artikuluak
Aulkiak, heldulekuak...
- ⇒ Gurpil-aulkiak
Sendoak, biltzen direnak, seguruak, elektrikoak...
- ⇒ Eskaren aurkako materialeak
Koltxoi eta kuxin hauek babesa eskaintzen dute
eskarak garatzeko arriskua dutenentzat
- ⇒ Garabiak
Erabiltzailearen eta zaintzailearen segurtasuna
eta erosotasuna bermatuz.
- ⇒ Beste hainbat artikulua
Oinetako erosoak, diabetikoentzat produktuak,
zirkulazioa aktibatzen dituzten aparatuak...



HIZKUNTZ ESKUBIDEAK

**GORA.** Fotokopiak euskaraz badira, askoz hobe.

Denda honetan fotokopiak ateratzen dituztela iragartzeko euskaraz idatzitako kartela zintzilikatu dute erakusleihoan. Bejondeiola saltzaile honi! 📎 **Uztarria**

**BEHERA.** Txirrina ere euskaratzea onena!

Karrera honetako txirrina ez da modernoa inondik ere, baina tinbreetako solairuen izenak euskaraz idatzita baleude askoz hobe denontzat! 📎 **Uztarria***



Ilazki Goenaga.

ESANA DAGO

III “Hondartzetan agertutako izurde batzuk ehizatu egin dituztela da hipotesietako bat”

III “Oso kuriosoak dira izurdeak, egia da; askotan ez dakigu nork aztertzen duen nor”

ILAZKI GOENAGA
biologoa eta Ambar
elkarteko kidea

III “Internazional mailan lehenengoz egingo den ‘Psicoblock’ (ur gainean sokarik gabe) txapelketan parte hartzeko gonbita egin didate Norvegiatik”

GORKA KARAPETO
eskalatzailea



kutxa



MADINA

ERRADIOLOGIA

- Hartz erradiologia digitala
- Ortopantomografiak eta teleradiografiak
- Implantologiarako 3D hartz eshanerrak (100% manilar peluhula bakoitzeko)
- Ehografia, mamografia, hezur densiometria (Osteoporosi azterketetah)

Toribio Etxeberria 4-1^o Etx. 20600 • EIBAR tel. 943 202657

Hamar urte

Hamar urte bai baina atzo gertatu zela dirudi. Edo oraindik ere gertatu zena benetan gertatu ote zen, galdezka neure buruari. Bizitzako, nire bizitzako aurreneko kolpe krudela. Mundua jateko prest eta heriotzak irentsi.

Diego eta Josefa zituen ispilu, Manuel anaia makulu eta Carmen arreba guardako aingeru. Norbait izatera iritsi zen baina lagunik gabe ez zen inor. Elortxa, Larrume eta Joxe Mari gertu, oso gertu behar zituen. Beranduago etorri ginen gu, Gurru, Etxe, Txapel... Eta tartean, bidelagun eta lagun, benetako lagun, Jexux eta Amaia.

Bere Azkoitia maite zuen baina gure Azpeitian gustura bizi zen. Inor ez haserretzeko agur ere bi herrien mugatik gertu esan zigun.

Ospea lanak eman zion. Artista bai baina buzoa jantzita egin zen handi. Santi miresten zuen; Gorrotxategi errespetatu; Mostazaren deiaren zain egoten zen beti; Perarnau, goitik beherako gizona; eta Juan Mari... Gure Juan Mari denerako balio zuen, batipat, gorputza eta arima sendatzeko. Lankide eta aurkari gehienak lagun zituen (badira hor zehar oso gustuko ez zituen pare bat). Martin zuen gertuko, Alberto kuttun eta Joxe etxeko.



|||||||txetxu urbieta|||||

Bartzelona, Tokio, Seul, Rotterdam, Sevilla, Donostia, Atlanta, Atenas, Behobia eta Goteborgen utzi zuen bere arrastoa. Fukuokak eta Helsinkik utzi zuten beregan arrastoa. Marka batean eta domina bestean.

Etorkinen seme, gutarra zela demostratu beharra sentitzen zuen. Egaña idolo baina bertsolari kaxkarra (barkatu baina egia duk).

Hezur eta haragi hitzen, santutik gutxi, pekataritik apur bat, alutik dezente, zeruan sartzeko arazoak izango hituen baina hemen behean zulo handia utzi huen. Zaindu adi eta eskuminak Takolori eta Felixi. Hamar urte.*

|||IKUSTEKO|||



▲ELEGANTE EGUNAREN SORRERAKO ARGAZKIA.

1981eko Jai karnabaleko argazkia da. Lehen edo bigarren elegante eguna izan zen. Argazkian, goian ezkerretik hasita: Jose Antonio Juaristi, Aitor Larrañaga, Juan Jose Arakistain *Pino*, Jabier Gurrutxaga *Txokolo* eta Pello Aizpuru. Behean: Joseba Arrizabalaga *Enbortxo*, Iñaki Alberdi *Zabale*, Luxio Galarraga eta Joseba Olaizola. 📷 **Pepe Gil** (argazkia utzi duena: Pello Aizpuru)*

OTSAILEKO ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN...



Adierazi dagokion lekuan

ADIERAZGUNEAK. Adierazpen askatasuna bermatuta dagoen edo ez eztabaidatu beharrean, Udalak gure adierazpenak jartzeko guneak sortu ditu. Nonbait, edozein bazterretan kartelak jartzea ez zen egokia. Azkoitian ez da oso eraginkorra izan neurria. Kartelekin paretak xixko eginda gelditzen ziren, baina Hispanoko paretak kartelak jartzeko sortua zela uste nuen, gaur arte!



alex silva



Azpeitia... Hollywood?

ZINEA. Mugaldekoak, Go!azen, Izarren Argia... eta orain, *Sabin!* Sabino Aranaren bizian oinarritutako fikzio-ko filma grabatuko da Azpeitian. Donostiako kaleetan egunero grabatzen ei da zerbait, laster, gurean ere hala izango da. Herriarentzako onura den bitartean... aurrera!



Azpeitian euskaraz bizi gara, bai horixe!

EUSKARA. Bazen garaia gurea bezalako herri euskaldun batek bere izaeraren berri ematen duen kartel bat izateko. Azpeitia eta azpeitiarrak euskaraz bizi gara eta bizi nahi dugula aldarrikatzea du helburu. Horretarako tartea ere izango da apirilaren 13an, Korrika pasatuko baita

Azpeititik Euskalakari leloarekin. Azpeitian Euskalakari asko daudela esan daiteke eta! Baina agian, dena horrelako ikono eta irudietan gelditzen da. Izan ere, Kontseiluak eginiko azken azterketek Azpeitiko hizkuntza politika lehen postutik laugarrengora ekarri dute eta.✱

INKESTA

san Jose jaietan
LoioLara joango
al zara?

Ainitze Agirrezabala

JOXEMARI LASA

azpeitiarra



"Garai batean joaten nintzen; orain, orde, ezer handirik ez da egoten, eta ez naiz joaten. Orain azkarregi bukatzen da festa: asto karrerak, herri kirolak eta kito. Gauzez jenderik ez da arrimatzen Loiolara; garai batean, berriz, ikaragarri".

ARANTXA ARRIZABALAGA

loiolatarra



"Loiolako Berrosetara ezkondu nintzen. Lehen erromeria

oso alaiak izaten ziren, baina auzoetako jaiak asko galdu dira. Orain, iloba txikiekin joaten naiz asto karrerak ikustera".

JOXEMANUEL LABAKA

azpeitiarra



"Garai batean, gaztetan, beti joaten nintzen. Erromeria ederra izaten zen han dantzan egiteko. Gaur egun, gutxiago joaten gara. Halere, asto karrera ikustea asko gustatzen zait".

MARIKARMEN LARRAÑAGA

loiolatarra



"Garai batean, hutsik egin gabe joaten ginen. Egan taldearekin

dantza egindakoak gara. Jende asko izaten zen. Zahartu egin gara, baina mezetara joanez asto karrera ikusten dugu".*

Hondakinak direla eta...

Zubietan eraikiko da errausteko planta erraldoia, eta bere bideragarritasuna bermatzeko aurreikusita baino zabor gehiago jasoko du: 260.000 tona izango zenak, 318.500 erre ahal izango ditu orain. Aldiz, aurreikusitako beste bi konpostatze plantak ez dituzte egingo, gure herriko Lapatz handitu eta egokituko da. Hemen oraino biltzen den hondakin organikotik, 4.000 tona ingurutik, 2.500 tona konpostatzeko ahalmena bakarrik duelako, %40 zaborteigira doa. Planak 19.930 tona organiko biltzea aurreikusten zuen 2009rako, beraz, %12,55 bakarrik konpostatzen da.

477.926.377 euroko kostua izango duen obra FCC Esther Koplowitz enpresari ezagunari eman diote, eta taldean daude Altuna y Uria, Gabriel Murias, AE&E. eta Serbitzu SL (azken enpresa horrek kudeatzen du A-8 autobidea).

Carlos Ormazabal Gipuzkoako Hondakinen Par-txurgoko lehendakariak Zaldunbordan eta Arrasa-



higinio oiarzabal

ten egiteko ziren konpostatze planten asmoak jarraitzen dutela, baina aurrerago gauzatzeko, eta ez du datarik zehaztu. 2013-14 tartean zaborteigira dirautenak itxi egingo dira, Urteta, Sasieta eta Lapatz, eta azken horrek konpostatze planta moduan jarraituko du.

Komunikabideek emandako datu esanguratsu bat: Hernanin (19.289 biztanle) 125 tona hondakin organiko batu zituzten abenduan; Zarautzen, berriz, (22.627 biztanle) 19 tona bakarrik.

Oposizioko taldeek salaketa gogorrek egin dituzte. EBko Mikel Izagirre, Urnietako alkateak "onartezina, eskandalagarria eta erakunde interesetara makurtzea" esaldiak erabili ditu, eta ezker abertzaleak "azkenean garbi geratu da EAJ eta PSeren benetako helburua errausteko planta eraiki eta kudeatuko duten enpresei izugarritzko negozioa bermatzea dela, eta ez hondakinak ahalik eta gehien murriztea". Eta besteek ere antzekoak esan dituzte.*

galdetzen hasita, LoioLako herri irratienaren egoitza ezin al da erabili
Azpeitian irratia berria sortzeko? Uztarria

Herriaren indarra

Ezustean albiste bihurtu dira herrialde arabiarak. Tunisian piztutako sua, laster zabaldu da Egiptora. Libian ere gori-gori dago giroa eta txinpartak iritsi dira Jordania, Yemen, Argelia, Maroko eta Siria-
ra ere. Denborak esango du gar bihurtuko diren edo ez.

Azken asteotako gertaerak ikusita hainbat burutazio datorkit. Lehena, guztiz pertsonala: amorratu egin nau nazioarteko gaiekiko dudak ezjakintasunak. Nahi izanez gero, informatuta egotea ez da zaila, ados, baina eskolek ere gehiago egin behar luketela esango nuke. Selektibitatekin ere kendu omen dute historia, ez zait ondo iruditzen.

Sare sozialen eragiteko gaitasunak ere eman dit atentzia. Facebook bidez egindako deialdi bat aski izan da herrialde oso bat mobilizatzeko. Ekonomia-
rekin lotuta, uste dut nazioarteak nahiko lasai hartu dituela Tunisia eta Egiptoko liskarrak. Libia, orde, petrolio ekoizlea da, eta horrek gauzak aldatu egi-



miren garate

ten ditu. Eta Saudi Arabia matxinatzen bada? Auskalo zer proposatzen duen Rubalcabak, asto gainean ibiltzea akaso.

Plaza bat sinbolo bihurtu da berriro ere. Borroka irudikatzen du Buenos Airesko Maiatzeko Plazak; kristautasuna Vatikanoko San Pedrok. Egiptoko Tahrir, berriz, izenak berak dion bezala, askatasunaren ikur bihurtu da. Hala ere, ororen gainetik, herriaren indarraren demostrazioa nabarmenduko nuke, elkartuz gero, iraultza egitea oraindik ere posible dela frogatu baitute.

Handia da Tunisiak eta Egiptok lortutakoa. Miresgarria, herri mugimenduari esker lortzen diren gauza guztiak bezala. Azpeitian bertan ere badago halako adibiderik. Diktadura bat eraitea adinakoa ez da izango, baina ezin meriturik kendu. Herriko plazan bertan Sanagustinpeko azpiegiturak egokitu eta kulturari hauspoa emateko egindako ahaleginagatik, eskerrik asko kultur mahaiari.*



andoni salegi



Trapuzaharrak!



||||||| **enaut frantzesena** |||||

Aldaketak izan dira aurten danborradan, eta garrantzitsua dela uste dut egoera berriaren aurrean aldatzeko gaitasun hori izatea. Hurrengo urterako ere egin beharko dituzte aldaketak, bukaera txepel samarra izan baitzen, baina ez dago dudarik, aldaketak egitea eta gauza berriak probatzea da bidea.

Hau idazten ari naizen astean izango dira kaldereroak, eta aspaldian aldaketa eskean dabilta. Kaldereroek ere izan dituzte hainbat aldaketa, baina aldaketa horiek ez dute eman esperotako fruiturik. Ardozaleak elkarreak utzi zion antolatzeari, aurten Musika Eskola-koak ere ez dira izango, eta behea jota dagoen festa da.

Zergatik funtzionatzen dute danborradan egindako aldaketek, eta kaldereroetakoek ez? Hainbat faktore aitatu genitzake, baina hau da garrantzitsua: jendeak danborrada bere sentitzen du eta kaldereroak, aldiz, ez. Eta geure sentitzen ez dugun bitartean jai daukagu.

Hori dela eta, kaldereroak indartzeko proposamena bota nahi dut hemendik. Kaldereroek berrerabili egiten zuten, gauzak konpondu, trukatu eta abar. Herrian horren inguruan egiten diren ekimenak ugariak dira. Agenda 21 egitasmoaren baitakoak, eskoletan egiten direnak, gaztetxe-koek antolatzen duten truke azoka... Ekimen horietako asko kaldere-

roen astean programatu eta egin ote daiteke aste potente bat kultura, berziklapena, hezkuntza eta festaren inguruan? Horrela, aste horren bukaera moduan kaldereroek lekua izango lukete, eta ganbarako arropa zahar-ekin kalera aterata izugarritzko festa sortu liteke.

Ez dakit proposatu dudana ideia hori egin garria den; ezta ekitaldi bat salbatzeko hainbeste lan hartzea merezi ote duen ere. Dakidana da kaldereroak geure ez sentitzekotan hobe dugula hurrengo urtean ez egitea. Duela urte batzuk, prozesioa egiteari ere utzi zitzaion eta urtero han izaten ginen batzuk poz-pozik geratu ginen!*

||| **ELKARRIZKETA ONLINE** ||||| **Bertan Merkatarik Elkarteak**

“Ateak zabalik dituzte la esan nahi diegu gure elkartean ez dauden dendariei”

||| Bertan Merkatarik Elkartea 2008an sortu zen. Merkataritza sektoreari ‘bultzada berria eman’ eta, bide batez, ‘herriari bizi pixka bat’ ematea ditu helburu.

Gustura ari al zarete elkartean? Hainbeste bidegorriekin pentsatu duzue ‘La Ruta de la Bici’ erosketarako ibiltzea? Animo!

Oso gustura gaude. Herrian merkatarik elkarrekin bat egoteak garrantzia handia du merkatariorik elkartu eta bateratuta ekintzak egiteko. Bidegorriarena guretzat ideala litzateke, baina zoritxarrez, edozer gauza egiteko autoa hartzen dugu, eta gure nahia denden inguruan aparkalekuak egotea da.

Bertan txartela banketxean kontratatu ondoren, hasierako baldintzak aldatu direla konturatu nintzen handik hilabeteetara: erosketak esku-dirutan ordainduta, puntuak pilotzeko aukera

galtzen genuen. Desengainatuta txartela utzi dut.

Txartelarekin ordaintzeko gutxieneko diru kopurua ez du elkarrekin ezartzen, denda bakoitzak baizik. Hasieran euro bat-puntu bat ematen genuenean, 1.000 puntu egin ondoren 10 euro oparitzen genituen. Bederatzi hilabetetan 12.000 euro banatu ditugu. Hori guretzat jasanezina da. Baina, hil

honetan puntuen kanpaina martxan jartzekoak gara

Herriari bizi pixka bat emateko jarriko al zenukete sagnagustinen tabernaren bat?

Tabernaren proiektua oso ondo ikusten dugu, herriari dinamismo eta bizi gehiago ematen diolako.

Bertan ibilbideaz zer balorazio egiten duzue?

Positiboa. Ahalik eta ondoen egiten ari gara, nahiz eta baten bati zenbait gauza ez gustatu. Hala ere, gauza horiek zuzendu eta lanean jarraitzeko asmoa dugu.

Zenbat merkatarik zarete?

120 dendari gara. Elkartean ez dauden dendariei esango genieke gure ateak zabalik daudela, elkarrekin bat egin dezaten.

Krisia asko nabari al da?

Ikaragarri. Giro oso triste nabari dugu. Beherapenetan egun batzuk onak dira, eta beste batzuk ez hainbeste. Baina, orokorrean, merkealdia oso apal da.*



||| **EFEMERIDEAK** |||||

1647

Herriatik ihesean. Bederatzi urterako kontratua eginik zuen Joseph Iturralde txistularia atxilotu eta herriko kartzelara ekartzea erabaki zuen Udalak.

1785

Ogiaren prezioa zehaztu. Herrian eta Urrestillan ogi aegiten zuten emakumeek 17 ontza eta librazio ogiak zer prezioan saldu beharko zituzten agintzea erabaki zuten, beste agindua bat eman bitartean.

1828

Eliza eta apaizaren etxea egiteko. Beraien lana eta izerdia eskaini zioten herriari Aratz-Errera auzoko biztanleek.

✍ **Iturria:** Azpeitiko efemerideak. Herria historian zehar liburua.

||| Egilea: Imanol Elias Odriozola.

||| Argitaratzailea: Uztarria Kultur Koordinakundea.*

Elkartasun printza

Eguzki-plakak eta ordenagailu gela muntatzen
Saharan izan dira Manzisidor, Galarraga, Mendizabal
eta Amenabar. 📎 Ainitze Agirrezabala 📍 Khamar



▼ AUSERD.

Gabonak aurretik izan ziren lau azpeitiarrak Auserd kanpamentuan. Manzidor eta Galarraga abenduaren 3tik 9ra egon ziren, eta Mendizabal eta Galarraga 20tik urtarilaren 1era. Argazkian, Manzidor saharar umeez inguratuta, kamioiko materiala garraiatzeko pronto.



▲ PIKATXOIAREKIN.

Hesolak lurrean sartu eta haietan eguzki-plakak jartzeko, aurrena lurrean zuloak egin beharra zegoen. Argazkian, Manzidor pikatxoiarekin lanean; atzean zaindaria duela.

▼ BATERIAKKONEKTATZEN.

Iñaki Galarraga Txato bateriak muntatu eta konektatzen. Alboan duen gizona Salec da, eta haren etxean hartu zuten ostatu azpeitiarrek.





▲ **HIRUKOTEA ETA EGUZKI-PLAKAK.**

Eguzki-plakak muntatu ondoren argazkia atera zuten. Salec militantea da eta Marokoren kontrako gerran Saharako armadako kidea izan zen.

► **UMEAK 'POZIK'.**

Khamar taldeak ordenagailu gelaren kudeaketa "erregulatu" nahi du. Ordenagailu gelako kudeatzaile Mohamed Laminek Ofimatica programaren oinarritzko ezagutza badu, hango umeei erakusteko. Ordenagailuak jarri zituztenean umeak "oso gustura" zirela diote. Argazkian, Salecen alaba Minetu.

▼ **SAHARARRAK HERRIAN.**

Ume sahararrak udan etxean hartu nahi dituzten familiek helbide honetara idatzi behar dute: khamar1@hotmail.com. Argazkian, iaz Euskal Herria da urte berria! urtearen hasieran uda pasatzen izandako hainbat ume.



▲ **BEDERATZI ORDENAGAILU.**

Ordenagailu gela eraiki zuten, eta mahaia eta ordenagailuak jarri. 9 ordenagailu eta inprimagailu bat jarri dituzte.





▲ **INSTALAZIOA EGITEN.**

2010eko karabanan bidali zituzten ordenagailuak, eguzki-plakak muntatzeko materiala eta bateriak. Horiek kudeatzeaz eta banatzeaz Frente Polisarioa arduratzen da. Khamarren esanetan "banaketan istiluak izan dira, hango gizartean ere mailak daudelako". Argazkian, Joanes Amenabar kableatuarentzako lurrean zuloa egin eta instalazioa egiten.

▼ **AGURREKO FESTA.**

Urte zahar gaua aireportuan pasatu behar zuten Mendizabalek eta Amenabarrek, eta Auserd herritik alde egin baino lau egun lehenago "ezusteko" festa egin zieten, Salecen etxean.



Ajeak eta pozak eskutik

Bila joanda edo ezustean etorrita, ama oso gazterik izan diren hainbat herritarrek euren esperientzia kontatu diote Uztarriari. 📧📞 Ainitze Agirrezabala

Naturako miraririk handiena emakumearen barruan sortzen den haurtxoa dela esan daiteke. Bila joatetik ezustean etortzera badago aldea, eta oso gaztea bazara are handiagoa, baina guztiek diote umeak bizipozik handiena direla.

AMAIA ALDAI

||| Ama izan zen: 20 urterekin.

“Laguntza eta babes handia izan dugu gurasoen aldetik”

“Turismoko bigarren ikasturtea ekainean bukatu eta abuztuan jakin nuen haurdun nengola. Mutilarekin bi urte neramatzan, eta hura ere ikasten ari zen. Garbi genuen ez gurela ezkondu nahi, ez zitzaigun iruditzen ezkontzearekin ezer konpontzen genuenik. Lehen unean elkarri esan ez arren, inoiz pentsatzen duzu: ‘honekin alaba izan dudalako, derrigortuta nago bizitza osoan harekin izatera?’. Pasatakoa pasa arren, gure harremanak gartzeko bere erritmoa segitu behar zuen. Egia esan, orain artean gazzak ondo joan zaizkigu.

Ume hura hazten lagunduko zidatela esan zidaten aitak eta amak, eta mutilaren gurasoek ere ahal zuten guztian lagundu ziguten. Hasierako sustua pasata, egia esan, sekulako suertea izan dugu gurasoen aldetik, haien laguntzarik eta babesik gabe, gaur egun ez baikinake gauden bezala egongo.

Haurdunaldia aurrera emateko urte sabatiko hartu nuen. Ez ginen elkarrekin bizitzen jarri, bakoitzak bere etxean segi genuen. Haurdunaldia eta erditzea oso onak izan nituen. Amak eta amaginarrebak lagundu zidaten ospitalera, baina Pedro klasean zegoen, eta hura ailegatzerako Iraide jaio zen. Alaba izanda gero, Pedro egunero etortzen zen gure etxera umea ikustera.

Martxoan ama izan eta urrian turismoko azken urtea hasi nintzen egiten. Umea etxean amarekin utzi eta Donostira ikastera joan nintzen aurreneko egun hura oso gogorra egin zitzaidan, baina nik garbi nuen ikasketak bukatu eta lana egin nahi nuela. Ikasketetan notarik onenak guraso izan eta gero atera genituen senarrak eta biok. Guraso izateak heldutasuna eta motibazioa eman zizkigun.

Badakit gaztaroko urterik garrantzitsuenetan beste edozein gaztek egiten zituen gauza guztiak egiterik ez gurela eduki. Egoera berri hark lagunengandik pixka bat urrundu egiten zaitu. Momentu batzuetan faltan botatzen dituzu, edo esaten duzu: ‘jo, ni hemen nago fardelak aldatzen eta biberioa ematen’, baina ez dut inolako traumarik.

Egonkortasun pixka bat lortzean, Iraidek sei urte zituela, ezkondu eta elkarrekin bizitzen jarri ginen. Bederatzi urtera bigarrena eduki genuen. 19, 10 eta 2 urteko seme-alabak ditut, eta etxean diskurtso desberdinak ditugu: txikienak burukoa hartu duela, erdikoak etxeko lanak dituela egiteko eta zaharrenek arroparik ez duela. Ez aspertzeko lain”.

AINHOA ARREGI

||| Ama izan zen: 15 urterekin.

“Atzera egiterik banu, ez nuke ezer aldatuko. berriz egingo nuke”

“14 urterekin geratu nintzen haurdun, eta biokoteak eta biok umea edukitzea erabaki ge-

nuen. Hala, ezkondu egin ginen, Santio Egu-
nean, lau-bost hilabeteko nengoela. Komu-
nioko argazkia dela dirudi. Ni baino hamar
urte zaharragoa zen mutila, eta elkarrekin ur-
tebete edo generaman. Abuztuaren 19an,
ordea, sei hilabeteko, erditzea aurreratu zi-
tzaidan eta hil egin zen alabatxo. Kolpe latza
izan zen, batetik umea galdu nuelako, eta
bestetik, pasatu nuen guztia pasatu behar
izan nuelako: eskola utzi, ezkondu, gizonaren
gurasoen etxera bizitzera joan, kalean sortu
zen zeresana jasan... Egoera hartara heldu
nintzenez gero, ama izatea nahi nuen, eta se-
gituan bila joan ginen. Hurrengo urteko abuz-
tuaren 23an jaio zen semea. Bigarrena han-
dik bost urtera izan genuen.

Erditu eta umea besoetan jarri zidaten
unea ondo gogoan dut, ilusio handia egin
zidan. Haurdunaldia oso ona izan nuen, erdi-
tzea, aldiz, oso gogorra, baina gero, umea
hazteko oso ondo moldatu nintzen. Gainera,
pertsona nahikoa optimista naiz, etortzen
dena etortzen dela aurrera egitekoa. Noski,
aldega dago, inguruak asko egiten du: gura-
soek nola hartzen duten, bikoteak... Egia
esan, egundoko suertea izan nuen, bai nire
etxekoek, baita gizonaren etxekoek ere
babes handia eman eta asko lagundu zigute-
lako. Halere, esan beharrik ez dago, kalean
besteengatik erraz jarduten dugula, eta min
handia egiten dugula. Nik anekdota pila ditut.
Behin, denda batean sartu eta bi emakume
han entzun nituen: 'jakin al duzu herrian ume
bat haurdun geratu dela? Gizagaixoa!'. Eta,
ni han, isilik. Pena dut, isilik geratu baino
gehiago, ez naizela emakume haren aurpe-
giarekin gogoratzen. Honezkero, joan nin-
tzen harengana, eta esan: 'garai batean esan
zenuen ume gizagaixo hark, ez bat, bi seme
ditu; begiratu zer ume eder'.

Bizitza dena aldatzen zaizu, baina umea-
rengatik dena utzi beharra—lagunak, parran-
dak...—ez zitzaidan batere gogorra egin. Ume
batek ematen duen bizipoza hain da handia...
Gero, 20 urterekin aitaren enpresan lanean
hasi eta etxe bat ere erosi genuen.

Semeek 25 eta 20 urte dituzte eta esan
dezaket 40 urterekin nagoela bi semerekin
baina libre, kakotx artean. Eta, esaten duzu,
bai, gaztaroan zenbait gauza galduko nituen,
baina irabazi ere bai. Gainera, koadrilan
—neska eta mutil gara— oraindik ere kalera ir-
teten dugu ostiralero, larunbatero eta igan-
dero, eta alde horretatik ere zorte handia dut.
Atzera egiterik banu ez nuke ezer aldatuko.
Berriz egingo nuke. Askotan esaten dut, 40
urtek kontatzeko hainbeste eman didate,



Hiru belaunaldi: Lurdes Urdalleta, Ainara Astigarraga eta Manex eta Xuban anaia bikiak.

neure memorien liburu bat idatzi beharko nu-
keela.

LURDES URDALLETA ETA AINARA ASTIGARRAGA

||| **Ama-alabak:** 17 eta 21 urterekin izan
ziren ama.

“Bat seaskan, bestea Lepoan eta
hirugarrena sabelean nuen”

“Hilekorik ez zetorkidan, eta bigarren faltare-
kin amari esan eta ginekologoarengana joan
ginen—adierazi du Lurdes Urdalletak—. Haur-
dun nengoela jakin genuenean amak kristo-
ren negarrak egin zituen, sekulako disgustua
hartu zuen. Mutilarekin juntatu nintzen hu-
rrango aldian esan nion: ‘badugu ba hiruga-
rren laguna ere’. Sustu ederra hartu zuen.
Hark ere gurasoei esan zien, eta onena ez-
kondu eta umea ekartzea zela esan zuten. 17

urterekin ezkondu nintzen, gizonak 21 zituen,
eta nire jaiotetxean jarri ginen bizitzen gura-
soekin. Askok lagundu ziguten.

Hasieran sustua izan zena, bizipoza zen
gero, eta ilaran beste bi etorri ziren atzetik:
Ainara eta Maitane. Bat seaskan, bestea le-
poan eta hirugarrena sabelean nuela hor ibili
nintzen. 20 urterako hiru umerekin nengoan.
27, 26 eta 25 urteko seme-alabak ditut. Ikus-
ten duzu lagunak juergara doazela, afaltzera,
batera eta bestera, eta ni umearekin etxean.
Bizimoduari beste era batera begiratzen
dionzu. Gerora, alabekin egin izan dut parran-
da, eta esaten ziguten: ‘Ene! Zer ama gaztea
duzuen! Ahizpak ematen duzue’.

Batzuk ama izaten diren garaian egin
naute ni amama, 40 urterekin. Alaba hain
gazte bikien esperoan zegoela jakitean pen-
tsatzen nuen ‘honek zeukak orain infernua!’.”

Lurdesen alaba Ainara ere gazterik izan
zen ama: “Urtebete edo neraman bikoteare- ➔

►kin, eta elkarrekin bizi ginen, —kontatu du Aina Astigarragak—. Hilekorik jaisten ez eta mutilari esan nion: 'uste dut hemen zeozer badatorrela bidean'. Farmaziara joan zen Predictor erostera; Ni bitartean etxean zain, urduri. Positibo eman zuen. Hasieran ezin nuen sinestu, baina gero ilusio handia egin zidan.

Lau hilabeteko nengoela egin zidaten lehen ekografia, eta ginekologoak hala zihoen: 'begiratu pantailara, hemen bat ikusten da; hemen bestea'. Eta, nik: 'Nola bat hemen eta bestea hor ikusten direla?'. 'Bai, bi dituzu'. Eskerrak etzanda nengoen, bestela atzeraka eroriko nintzen. Ibon, ama eta hirurok itxaron-gelan hitzik egin gabe egon ginen.

Izatez, familian oso urrun ditugu bikien kasuak. Ibonen aitaren lehengusuak eta nire aitona anaia-arrebak bikiak ziren. Horrek, ordea, zerikusirik ez duela esan zidan medikuak, familian aurrekaririk izan gabe ere bikiak jaio zitezkeela. Haurdun geratuko baintz berri bikiak edo hirukiak edukitzeko arriskua dudala esan zidan. Hori jakinda, joan zaitez bada orain neska baten bila!

Haurdunaldia oso ona izan nuen; erditzea, berriz, oso txarra, gogorra. 10-15 minuturen aldearekin jaio ziren. Ama izatean asko hunkitu nintzen. Etxera bueltatzean aurreneko astea gogor xamarra egin zitzaidan, baina umeak ezagutuz joan ahala ondo moldatu nintzen. Ume onak izan dira”.

NAROA BENGOTXEA

||| Ama izan zen: 23 urterekin.

“gaur egun hirugarrena ekartzea ondo pentsatu beharrekoa da”

“Txikitatik garbi nuen ama gazterik izan nahi nuela. 2005eko irailean, 22 urterekin, ezkon-



Amaia Aldai eta Pedro Iriarte, Iraide alaba jaioberria besoetan dutela. ||| Amaia Aldai

du eta urte berriarekin batera txiki baten bila joango ginela erabaki genuen. Martxoan haurdun geratu eta abenduan jaio zen Enaitz. Bigarrena, Maddi, bi urte eta erdira jaio zen. Haurdunaldiak eta erditzeak zoragarriak izan ditut; horiengatik balitz zientoka ume eduki nitzazke, baina gaur egun hirugarrena ekartzea ondo pentsatu beharrekoa da. Halere, 30 urtera arte ez dut aterik ixten. Handik gora daukadanarekin bizi eta gozatu nahi dut.

Tripa handiarekin ikusten nindutenean lagunek hala esaten zidaten: 'Ai ama, Naro! Haurdun al zaude? Ezkonduta, gizona eta etxearekin, eta ni oraindik ikasketak bukatzeko'. Noski, gauza bat da bizitza honetan zer ilusio dituzun edo zer nahi duzun, eta bestea, bizitzak bide horretatik eramatea. Ni 16 urtetatik nenbilen mutilarekin —hura bost urte za-

harragoa da— eta harremana hasieratik oso serioa zen. 18 urte betetzerako etxe bat egiten hasi ginen. Lanean ere oso gazterik hasi nintzen. Oso garbi nuen karrerarik ez nuela egin nahi, eta 16 urterekin DBH bukatu, merkataritzako modulua egin eta lanean hasi nintzen. Baina, egia esan, senarrak dirua soberan irabaziko balu, lana utzi eta etxean umeak hazten geratuko nintzateke; baina, halakorik ez dugunez lanera joan behar.

Parrandazalea izan naiz, baina 13 urtetatik 18ra primeran pasatu dut, egin beharreko dena egin dut, eta atzera egin beharko banu berdina egingo nuke. Ez dut batere damurik, eta gizonak ere beste horrenbeste. Momentu batzuetan lotu egiten zaituela? Jakina! Ezin zara astebururo irten, baina irteten zaren horietan gehiago dakizu gozatzen. Ezkontza bat

arte eta diseinu ikastegia

Arti

Dibujo eta eskulanak
(haurrak) 17:30/19:00

Pintura 17:30/19:00

Talla 19:30/21:00

Jose Artetxe kalea, 3
669 414 025 - 943812808
matrikula urte guztian zabalik

KIRURI

JATETXEA

Loiola hiribidea, 24

LOIOLA - AZPEITIA

Tlfnoa.: 943 81 56 08

Faxa.: 943 15 03 62

LUBA

aholkularitza
laborala, fiskala, kontablea

- AHOALKULARITZA FISKALA,
LABORALA, KONTABLEA
- FINKEN ADMINISTRAZIOA

Enparan kalea, 45

Tel.: 943 15 75 25 Fax.: 943 15 72 75
e-mail: luba.ase@euskalnet.net

ORDULARI

Jose de Artetxe, 10
Tel. 943 81 52 44
20730 AZPEITIA



Naroa Bengoetxea eta senarra Enaitz eta Maddi seme-alabekin. ||||| Naroa Bengoetxea

dugula, edo afari bat, ba, umeak gurasoekin utzi eta nobiotan bezala egiten dugu parranda. Gainera, ez da izan, bat-batean etorri zai-gun zerbait, eta buelta nola eman jakin ez dugun zerbait; bila joan ginen. Gazterik izan nahi genuen guraso. Ni 20 urterekin izan ninduen amak, eta ama-alaba harreman hori horrela bizi izan dudanez, iruditzen zitzaidan neuk ere bide horretatik jo behar nuela.

Erditu eta umea ikusteak sekulako zirrara eragiten du. Egundoko miraria da. Umetxo hura zure barruan sortu dela ikusteak oilo-ipurdia jartzen dizu. Hain txikiak izanda lehenengoarekin beldur pixka bat ematen dizu, nola heldu eta bat eta beste... baina ia bigarrena bera bakarrik hazten da.

JARA ARANBARRI

||| Ama izan zen: 22 urterekin.

“Ez zen ezustean etorri, bila joan ginen”

“21 urterekin geratu nintzen haurdun eta 22rekin izan nuen alaba, Aisha. Mutilak 19 urte zituen aita izan zenean. Ez zen ezustean

28 urtetik gora

||| Aurreko belaunalditik ama izateko adina “asko aldatu” dela dio anbulatorioko emaginak, Marian Zabaletak. “Orain, gehienek aurreneko umea 28 urtetik gora izaten dute. 20 urterekin edo gazteago haurdun geratzen direnak etorkinak izan ohi dira, eta askotan ez dira emaginarekin dituzten hitzorduetara joan ere egiten”.

Zabaletaren esanetan, “sexu-harremani buruzko informazioa egon badago, baina gazteek edukazio falta handia dute. Lehen, Zumarragako ospitalean guardiak egiten nituen eta hurrengo eguneko pilularen eskean asko zetozen. Ezagutu ditugu behin baino gehiagotan etorri zaizkigunak. Orain, anbulategian astelehen goizean hasten dut jarduna, eta ordurako pilula lortuta izaten dute. Abortuari dagokionean, berriz, herrian ematen direnak kasu bakanak baino ez dira”.

etorri, bila joan ginen. Elkarrekin denbora gutxi generaman, hilabete batzuk, eta Enparan kalean jarri ginen bizitzen, alokairuan.

Aishak urtea egin zuenean berriro haurdun nengoela jakin nuen. Ilan ezustean etorri zen. Nik ez nuen nahi horren azkar, bestela lehenengoarekin ez duzu berdin gozatzen. Bi haurdunaldiak eta erditzeak oso onak izan ditut, baina erditu ondoren gaizki pasatu nuen. Lehenengoarekin, epidurala gaizki jarri zidaten, gorputz erdia mugitu ezinda geratu zitzaidan eta hilabete ingresatuta egon behar izan nuen. Bigarrenarekin ez zidaten epiduralik jarri, baina umetokian infekzioa izan nuen eta bularra ematen nionez Ilanek neumonia harrapatu zuen. Biok ingresatuta egon ginen, eta alaba zaharrena amak zaintzen zidan.

Mutila, Mulay Driss, jaiotzez marokiarra da, baina bi urte zituenetik Euskal Herrian bizi da. Kulturalki oso desberdinak gara, eta gauza askotan ez gara bat etortzen. Hasieran bere aitak gure artekoa ez zuen onartzen, baina orain hobeto konpontzen gara. Driss neska marokiar batekin ezkontzeko hitz emanda zegoen, eta aitak ezin zuen onartu semeak ezkon-hitza haustea eta, gainera, ezkondu gabe neska europar batekin umea izatea. Mutilaren aitak askotan esan digu ezkontzeko, baina hori bikotean hitz egin eta erabaki beharreko zerbait da. Esaterako, nire alabek txerrikirik ez dute jaten, baina haien kulturaren Gabonak, karnabalak... ospatu ez arren, gure alabek ospatzen dituzte. Drissek sekula ez dit eskatu buruan beloa jartzeko, eta nire alabak hazten direnean ez nahiago nuke painolorik jarrito ez balute. Mantentzeko modua izanez gero, marokiarrek lau emazte eduki ditzakete, baina nik hori ez nuke onartuko. Haiena kultura oso matxista da, baina nik egundoko suertea dut Driss txikitatik hemen hazi delako eta lagunartea ere hemengoa duelako. Gutako bat izango balitz bezala da.

Gazteena zeharo bihurria da, atzetik ibili behar beti. Bestea ez, bestea magalean eseri eta lasai-lasai egoten da. Oraingo ez, baina aurrerago beste ume bat edo bi eduki nahiko genituzke. Horretan mutila eta biok bat gatoz”.

IOSU
OPTIKA
Erdi kalea, beheka z/g.
Tel. / Faxa: 943 15 12 91

AZKOITIA
ERLOJU
KONPONKETAK
Arana, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

CITROËN 943 811 915 - AZPEITIA
aiertzaautoak@telefonica.net

Aiertza Autoak

Kamera adarrean

Azpeitiko sokamuturraren errepasoa egin du Enekoitz Esnaola kazetariak. Jendeak ikusten duena eta ez duena erakutsi nahi izan du. 📷 Xabier Otamendi

E

Ikarrizketaz elkarriketa dabil Enekoitz Esnaola kazetaria. Inguruko hedabide gehienek elkarriketatu nahi izan dute. Azpeitiko sokamuturrari buruzko dokumentala egitea bururatu zitzaion, eta horrek, ikusmin handia piztu du antza. Kamera aurrean soltura hartua daukala antzeman daiteke grabatu dituen elkarriketetan.

Idatzizko lana egitera dago ohituta kazetaria, baina oraingo honetan ikus entzunekoari heldu dio. “Ni idaztera ohituta nago, hau oso ezberdina da, gidoia nahiko azkar egin nuela esan liteke, idatzi beharrekoa baitzen, baina bideo zatiak ikusi eta aukeratzeak ordu asko eskatzen ditu”. Lara Madinabeitia gasteiztararekin ibili da lanean, berak hartu du irudi berriak grabatzearen eta edizioaren ardura. Kamera arruntarekin ordu batzuk grabatu ditu, baina horrez gain, bestelako teknikak ere erabili dituzte. Makina bat esames piztu baitzuen sokamutuilaren buruan eta zezenaren adarrean kamera bana agertu zirenean.

Irailean hasi zen proiektua indarra hartzen, Esnaolari dokumental hori egitearen ideia bururatu eta Zezen Beltz elkarteari proposamena luzatu zionean. Taldekoei gustatu egin zitzaion ideia eta martxan hasi ziren. “Hasi ginean garbi neukan inauteri aurretik aurkeztu behar genuela, jendea sokamuturrerako eta festarako gogoarekin zegoenerako, alegia”. Horregatik, inauterien aurreko astebu-kaeran aurkeztu zuten, otsailaren 26an, Sa-



Enekoitz Esnaola kazetariak Azpeitiko sokamuturrari buruz egin duen dokumentaleko irudi bat.

nagustinen, eta dagoeneko salgai dago dokumentala DVD formatuan 10 euroren truke.

Sokamuturraren idatzizko dokumentazioa asko dago, eta hala gogorarazten du Esnaolak ere. “Neu artikulua batzuk idatzita nago, Uztarriak ere atera izan ditu, sokamutilei elkarriketak ere egin izan zaizkie, Azpeitiko festen liburuan sokamuturrari zuzendutako atal bat dago. Idatzizko lana badago, ikus entzunekoa, ordea, ez hainbeste, ez behintzat dokumentatuta. Lan honekin ekarpen handia egin zitekeela ikusi nuen”.

Kaito eta Madrazok grabatutako bideo irudiak ere erabili ditu, eta horiek bere garaian egin zuten lana azpimarratzen du behin eta berriz, “haiengatik izan ez balitz bideo gutxi izango bailirateke Azpeitiko sokamuturraren inguruan”. Horiez gain, argazki asko aurkitu ditu eta baita jendeak besterik gabe grabatutako zenbait bideo. Horien artean, baita Botijo zezen ezagunarena ere.

Ezkutuko lana

Dokumentalaren helburua alde batetik, Az-



Enekoitz Esnaola. ■■■ Olatz Prat

peitian zezenak daukan garrantzia erakustean datza: “Ganaduzaleek diotenez, Azpeitian bezalako indarrik ez dauka sokamuturrak, edozein egunetan jende piloa egoten delako”. Beste alde batetik, jendeak ikusten ez duena azaleratu eta erakustea nahi izan du. Hor sartuko luke sokamutulen eta ganaduzaleen lana.

Herritarrei sokamutulen borondate eta esfortzua erakutsi nahi izan die dokumentalean. “Borondatez jarduten dute, ez dute ezer kobratzen eta gainera festetan aritzen dira, baina, beraientzat apenas egoten da festarik”. Esfortzu fisiko handia eskatzen du guzti horrek, eta karnabaletan “beti zezena” ibiltzen dela gogoratzen du; izan ere, 72 orduko luzera daukate hemen, eta horietako 14tan zezena izaten da kaleetan batera eta bestera. Horrek dedikazio handia eskatzen du. “Lehen zazpi izaten ziren, orain bederatzi lagun dira, eta agian, parrandaren bat egiteko aukera izaten dute. Nik garrantzi handia ematen diot horri, herriaren alde egiten duten lan horri”.

Soka ere mutilek beraiek prestatzen dute pazientzia handiarekin. Kalamuarekin egindakoa da, eta Filipinetatik ekartzen dute,

■■■ “2011n egindako lana da honakoa, baina, norberak bere seme-alabei edo bilobei erakusteko hor egongo da”

ENEKOITZ ESNAOLA

dokumentalaren egilea

Murtziako (Espainia) eta Donostiako bi den-den bitartez. Soka lodia eta fina erosten dira urtero, eta biak uztartzen dituzte praka txuriek. Beraz, zezena ez dagoenean ere lana egin behar izaten dute.

Ez litzateke sokamuturrik izango animaliarik gabe, eta kaleetan lau ordu eta erdian sei zezen egoteak urte osoko lana eta bizi osoko dedikazioa eskatzen du. Hori ere erakutsi du dokumentalean Esnaola kazetariak. “Gaur egun ganadutik bizitzea ez da erraza, ganaduzaleek ezinezkoa dela esaten dute. Egunero jaten eman behar zaie, garbitu egin behar dira, gastu ikaragarria suposatzen du horrek. Horregatik ematen diot garrantzi handia horri ere, hori mantentzea lortu dutelako, konpromiso handia erakutsiz”.

“Idiskoa aspaldi desagertuta litzateke Azpeitian sokamuturrik izango ez balitz”. Hala diote ganaduzaleek. Azpeitian adar bakarreko animalia ekarrita kexa gutxi izaten omen dira idiskoa baldin bada. Gainontzeko herrietan larbehia ateratzen dute, baina Azpeitirako txikitxo gelditzen dira horiek. Esnaola konfaturatua dago horrekin eta azken urteetan “apenas” ateratzen dela larbehirik dio.

Helburu horiez gain, badu bestelakorik ere dokumentalaren egileak. “Aurrera begira, transmisio lan bat beteko dela deritzot. 2011n egindako lana da honakoa, baina, norberak bere seme alabei edo bilobei erakusteko hor egongo da. Orain aterako dugu, baina, hemendik hamar urtera ateratzea ere posible litzateke”.

Sokamuturra txikitatik

“Gure etxean beti bizi izan da sokamuturra. Gogoratzen naiz umea nintzenean eliz kalean, amonaren etxeko leihotik begira egoten nintzela, beti hara joaten nintzen zezena inguru horretara iritsi aurretik”. Denborarekin zaletasuna areagotzen joan zitzaion eta egun sokamuturra dagoen bakoitzean Enekoitz kalean ikustea oso arrunta da. Txikitari ikasi zuen ohitura eta zaletasun horrek fruituak eman dituela ikus daiteke, beraz, azken hilabeteotan egin duen lana kontuan hartuta, besteak beste.

Sokamuturrak dituen hutsunez galdetuta bat nabarmentzen du gehienbat. “Eliz kalean, erditik aurrera, ez dute karrerarik apenas irekitzen. Sokamutillak asko aipatzen dute hori”. Karrerek babes handia ematen diete sokako zezenean dabilatzanei, eta horrez gain jolaserako aukera gehiago ere ematen du. Horregatik, karrerak irekita mantentzeak edertu egiten du sokamuturra. ✖





|||||haritz etxeberría 'ministro' |||||

|||||josu oiartzabal 'xenpelar' |||||

Zer kristo, hautsi kaiola!

Ministro. Lehen-go batean gure herriko pertsona jakintsu batek esana: PAPA ikusi edo hontza kaiolan ikusi berdin-berdina duk.

Xenpelar. Arrazoia dik, baina nik Ratzinger ikustea baino nahiago hontza ikusi.

Ministro. Oroitzen nauk txikitako *Mazinger Z* marrazki bizidunekin, eta baditek antza. Biak estralurtarrak ematen ditek eta eskuak oso suelto ibiltzen zizkiaten. Batzuk gaiztoen aurka eta besteak umeen kalterako.

Xenpelar. Kristoren izenean *kristonak* egin dizkitek.

Ministro. Beraiek dioten gisan jangoikoa goitik begira badago, ez zekiat zer pentsatu: perbertitu samarra dela eta bere artzainek egindako astakeriak ikustea gustatzen zaio-la, edo zer jantzi ez dakiela dabilela bere tunika zuria lixibarekin erre zaiolako.

Xenpelar. Ni azkenekoz elizara sartu ninduean (hileta batera noski) lehenengo gora begiratu nian jende gehienak bezala eta pentsatu nian: jainkoa hor goian badago eta tunika zuriakin, dena ikusiko zaiok ba behe-tik? Baina, beno, bere etxean zagok, nahi duen bezala egoteko.

Ministro. Ni ere familiako konpromisoak tarteko sartzen nauk elizara. Ez oso gustura, baina etxekoei samina arintzeko balio badik gaitz erdi. Hala ere, ezin diagu beti etxekoen peskizan ibili, eta apostasia egiteko ueña ere iritsi zaigula uste diat (espero diat artikulua hau amonak ez irakurtzea, bestela...).

Xenpelar. Gazte asanbladak eta emakume taldeak burutu ziaten moskeo kanpaina; berrotu ninduan, baina gero ez nian ezer egin.

Ministro. Kostata topatu diat elizak herriari eskaini dion gauza on bat. Elizagatik ez balitz

|||XENPELAR. “Apostasiako pausoa eman gabe ere, elizatik oso urrun gaudek”

|||MINISTRO. “Bizian elizara joan ez eta azken egunean ez gaituk ba sartuko?”

herrian ez huen leku berde asko egongo. Hormigoia ren inbasiotik libratu den bakarra duk, nahiz eta esklabak eskutatik alde egin.

Agurtzeko eskubidea

Xenpelar. Nire ustez aukeratzeko kontzientzia izan aurretik, instituzio baten parte izaten hasten gaituk, eta jende mordoska bat apostasiako pauso ofiziala eman gabe ere, praktikan elizatik oso urrun gaudek.

Ministro. Azpeitik hileta zibilak egiteko toki bat behar dik. Bizian elizara joan ez eta azken egunean ez gaituk ba sartuko? Eskubidea edukiko diagu ba ingurukoak agurtzeko leku egoki batetan nahi dugun modura?

Xenpelar. Amen, amen, amen.✕





Laster izango duzu gure berri.

Auzolan
21


azpeitia
udala

Martxoa korrika bizian

Elurrik eta haizete gogorrik ez bada, XIII. Ikasberri Krosa eta XVIII. Azkoitia-Azpeitia maratoni erdia hil honen 13an eta 26an jokatuko dira, hurrenez hurren.  Ainitze Agirrezabala

Iazko etenaren ostean, aurren, XIII. Ikasberri Krosa antolatuko lanean ari dira Ikasberri Kirol Elkartekoak. Iaz krosa antolatuko bi ahalegin egin zituzten, baina bi alditan bertan behera utzi behar izan zuten, elurragatik eta haizete gogorrenatik.

Aurtengo federatu eta eskolartekoen krosa Ikasberri Ikastola-ren eta Esklabetako elizaren tartean dauden zelaietan egingo da. Hori izango da aldaketa nagusia, beste edizio guztiak Goenako kanpian egin baitituzte. Sarietako ematen zaizkien garaikurrez gain, taldekako diru-sariak egongo direla aurreratu dute antolatzaileek. "Taldekako sariren bat jaso ahal izateko 5 probatan puntuatu beharko da gutxienez, eta proba puntuagarriak izango

DATUAK

Zer. XIII. Ikasberri Krosa.
Eguna. Martxoak 13 (igandea). **Ordua.** 10:15, 10:45, 11:00, 11:20, 11:35, 11:55 eta 12:20. **Tokia.** Ikasberri Ikastola inguruko zelaietan. **Antolatzailea.** Ikasberri Kirol Elkartea.

dira: kadete, jubenil, junior, senior-promesak, emakumezko zein gizonezkoetan".

Maratoni erdia

Diego Garcia gogoan, Nazioarteko XVIII. Azkoitia-Azpeitia maratoni erdia hilaren 26an jokatu da. 16:30ean abiatuko da lasterketa Azkoitiko plazatik, eta 21 km egin ostean Loiolako ibilbidean jarriko dute helmuga.✱

XIII. IKASBERRI KROSA

6 diru sari, taldeka banatuta. Aurrena sailkatutako taldeari 800 euro emango zaizkio, seigarrenari, berriz, 200 euro.

2 itzuli. Itzuli txikiak 1.100 metro ditu eta handiak 1.700. Ikasberri Ikastola inguruko zelaietan jokatu da aurtengoan.✱



2009. urtean jokatu zen XI. Ikasberri Krosa, senior gizonezkoen lasterketa, Goenan. **Nerea Uranga**

BESTERIK

1 San Jose jaiak Loiolan

Hilaren 19an, X. San Jose Sari Nagusia biatloia jokatu da, (16:30). 20an, asto lasterketa (13:00) izango da, eta arratsan herri kirolak. Martxoaren 26an, berriz, auzo afaria izango da. **Eguna.** Martxoak 19, 20 eta 26. **Tokia.** Loiola auzoa. **Antolatzailea.** Loiolako Festa batzordea.

2 Txirrindulari proba

Azpeitia Saria txirrindulari probaren 31. edizioa jokatu da. Kadete mailako proba izango da eta 55 kilometroko ibilbidea izango du (Azpeitia-Urrestilla-Azkoitia-Oikia-Azpeitia). **Eguna.** Martxoak 13 (igandea). **Ordua.** 16:00 **Irteera.** Plaza Nagusia. **Antolatzailea.** Lagun Onak Txirrindulari Elkartea.

3 Baginaren bakarriketa

Eve Ensler estatubatuar feministak 1996an sortutako antzezlan da. Txalo produkzioak aurkeztutako emaldian Aitziber Garmendia eta Ainhoa Garai dira antzezleak, Begoña Bilbaoren zuzendaritzapean. Sarrera 10 euro kostako da. **Eguna.** Martxoak 20 (igandea). **Ordua.** 19:00 **Tokia.** Sanagustin kulturunea. **Antolatzailea.** Kultur Mahaia eta Udala.✱

Azpeitiko ekimenez informazio gehiago: uztarria.com/agenda

IKASBERRI KIROL ELKARTEA
FEDERATU MAILA - ESKOLARTEKO KROSA

XIII. krosa!

2011KO MARTXOAREN 13an
AZPEITIA - IKASTOLAKO KANPAN



J.M. Otola



J.M. Ibarzabal



I. Etkezabal



Alberto Beloki



J.C. del Pozo



Jexux Artola

Antolatzailea:

ikasberri
KIROL ELKARTEA

Laguntzaileak:



ORDUA MAILA

10:15	HELDUAK MUTILAK JUBENIL MUTILAK JUNIOR MUTILAK
10:45	HELDUAK NESKAK KADETE NESKAK
11:00	JUBENIL NESKAK JUNIOR NESKAK KADETE MUTILAK
11:20	ALEBIN MUTILAK ALEBIN NESKAK
11:35	INFANTIL MUTILAK INFANTIL NESKAK
11:55	SENIOR PROMESA NESKAK
12:20	SENIOR PROMESA MUTILAK

DISTANTZIA

4600...	1.T+ 2.1.H
4600...	1.T+ 2.1.H
4600...	1.T+ 2.1.H
2800...	1.T+1.H
2800...	1.T+1.H
3900...	2.1.T+1.H
3900...	2.1.T+1.H
3900...	2.1.T+1.H
1100...	1.T
1100...	1.T
2800...	1.T+1.H
1100...	1.T
1100...	1.T
4600...	2.1.T+2.1.H
7900...	1.T+ 4.1.H

ITZULI TXIKIA 1.100 METRO
ITZULI HANDIA 1.700 METRO



LUCIANO SORALUCE





CONSTRUCCIONES
ANTZIBAR
ERAIKUNTZAK



sammic



LARRAÑAGA ZERRATEGIA, E.M.




KILOMETROAK 2011
klik!
AZPEITIA EUSKAL HERRIA



AZPEITIKO IKASTOLA IKASBERRI

HITZ GEZIDUNAK




Egilea:
Luma

* Irrati esatari azpeitiarra

HITZ GURUTZATUAK

EZKER ESKUBI: 1. Gogotik jan eta edaten du. 2. Röntgen. Barrabil. 3. Epearen haragi. Garen hauek. 4. Irri. Ohorezko hitz emate. 5. Uztai. Ehun mota. 6. Saturnoren satelitea. Aurpegiko ile. 7. Kanpo, landa. Gisa honetan. 8. Zilarrezko gauzaki. Kontsonantea. 9. Ikasten ematen den denbora.

GOITIK BEHERA: 1. Trebatzera behartu. 2. Kontsonantea. Aurretik. 3. Ikertuz. Musika nota, eskalan seigarrena. 4. Barazki mota. Hasi aditzaren oina. 5. Libre. Sasikume, bastart. 6. Hunki. Gai bakuna, metal zuri urdinkara, gogorra ohiko tenperaturetan baina hauskorra tenperatura oso apal eta oso garaietan. 7. Harrapa ezan! Otsail. 8. Zenbakiak erabiltzen ditu. Bostehun, zenbaki erromatarren arabera. 9. Beltzarazi.



SOLUZIOAK

HITZ GEZIDUNAK

A	R	R	A	I	N	A	T	I	K	A	●
L	●	A	L	O	●	I	●	N	A	Z	I
A	O	Z	O	G	O	H	A	●	I	T	●
H	●	T	I	A	●	A	R	A	R	A	I
A	N	O	B	R	A	●	R	A	L	I	●
●	U	N	●	A	D	N	O	K	A	N	A
I	D	I	A	R	●	A	I	K	E	●	O
A	L	O	R	U	G	E	S	●			
K	A	Z	I	L	E	S	A	B			
●	Z	●	B	●	S	●	M	●			

HITZ GURUTZATUAK

I	D	L	A	T	S	A	K	I	
Z	●	I	K	R	A	L	I	Z	
A	L	E	N	O	H	●	A	T	
R	A	Z	B	I	●	A	R	E	
A	T	E	Z	●	U	K	A	R	
N	I	Z	●	E	R	R	B	A	
U	G	●	I	K	R	E	P	E	
L	I	O	K	S	O	K	●	R	
I	D	N	A	U	P	I	T	R	

ZER DAGO SOBERAN, ZER FALTAN?



ARGAZKI LEHIAKETAN ERANTZUTEKO EPEA. Otsailak 21 (astelehena) NORA BIDALI ZURE ERANTZUNA. Perez Arregi plaza 1, behea. Azpeitia IRABAZLEARI SARIA. Odriozola upategiko ardo sorta opari PARTE HARTZEKO BALDINTZA. Uztarria Komunikazio Taldean bazkide izan behar da ZER DAGO SOBERAN/////ZER DAGO FALTAN.

ZURE IZEN-ABIZENAK

TELEFONO ZENBAKIA

Uztarriaren Otsaileko Argazki Lehiaketa

ZEIN DA?



Iñaki Errazkin Hautetsi Independentista



IRABAZLEA



Onintza Goenaga Uztarriako bazkidea izan da lehiaketako 125. irabazlea. Odriozola ardoak upategiko ardo sorta irabazi du sari gisa. Argazkian, Onintza Goenaga saria eskuetan duela.

ODRIOZOLA ARDOAK

ardoetan aukera zabalena
bertako produktuak eta gutixiak

Iñaki Azpiazu, 5 - Azpeitia - Tel. 943 15 13 16
Axiri poligonoa, 10 - Azkoitia 943850059 / Aitzuri kalea - Zumaia 943860103

od
rio
z
ola

Tipulina

Tipula basati baten antzekoa da, eta urte osoan kontsumitzen ditugun entsaladen zaporea osatzen du. Tipulina, tipula arrunta bezala, baratxuri eta porruaren familiakoa da.

Haztean buru borobila eta kolore anitza du, eta landare edergarria dirudi askotan. Landaketa erraza du eta oztoporik ez bazaio jartzen ugaritu egiten da. Europako edozein lurraldetan aurkitu daiteke.

Gure sukaldaritzan gutxi erabiltzen denez, ezin esango dugu elikagarria denik, baina bai diurikoa; bere zurtoina begietatik gertu zanpatzen badugu, malko isurtzea eragiten du.

Zapore leuna du; horregatik da garrantzitsua haren erabilera sukaldaritzan. Garbi dut tipulinak janari guztien zaporea indartzen duela, batez ere haragizkoena. Baina bere eragina leunagoa da arrainaren kasuan; egosi edo frijitzen denean galdu egiten baitu bere ahalmena. Eta, gordinik, ebakita edo xehatuta jaten dugu janariaren gainean zabaldua.

Funtsezko olioak ditu, eta hesteetako zizareak eta liseriketa aparailuko infekzioak suntsitzeko, eta tentsio altua jaisten laguntzeko balio du.

Familia honetako landare guztiak osasungarritzat jotzen ditugu; hala ere, nik pertsonalki frogatu ondoren bakarrik sinesten dut.✳

|||||||julian bereziartua|||||



ION IPARRAGIRRE medalla



1. Arrain zuria ala urdina?

Zuria.

2. Asko mimatu behar den generoa al da?

Lan handia du. Zenbat eta arrain handiagoa izan gehiago irauten du.

2. Mariskoa...

Neurritz kanpo baloratuta dago, gauza urria da eta.

3. 30 eurotan zenbat angula eros ditzaket?
Hiru, antiajo eta guzti.

4. Bezeroek zer arrain dute estimatuena?
Txitxarroa.

5. Eta, zuk?

Legatza, labea.

6. Zein da lanbide honen 'arantza'?

Arrainaren prezioa egunero aldatzen dela.

7. Arrain saltzaile ez bazina, zer?

Albaitaria.✳

📌 Ainitze Agirrezabala

ostadar optika
OPTIKAK - OPTOMETRIKAK

Jose de Artetxe, 17
Tel. 943-810664
AZPEITIA

Ibai Ondo, 28
Tel. 943-850445
AZKOITIA

lentzeria mertzeria

jose artetxe, 16

nabar

urke ondo pasa inauteriak

ARGAZKI ETA BIDEO ERREPORTAIK - salbe auzunea 35 - telf 943 15 12 87 - azpeitia

lora-etxea...

Kimubat
ASTE BUKAERAN IREKIA

Azpeitia-Urrestilla Bidea 20730 AZPEITIA Tfnoa.943 150085 www.kimubat.com

"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"

URBISTONDO MARGOAK

Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

AIZPURU AUTOAK

Landeta Auzoa - Tel.: 943 81 23 59
Faxa: 943 81 22 81 - 20730 AZPEITIA
aizpuru@aizpuru.net

AZPEITIKO INAUTERIAK 2011



ONDO PASATU!



Musu-truk lan eta lan

Umetatik izan du dantzarako afizioa, eta 25 urtean dantzak erakusten eta trajeak josten lan ederra egin du Itsasin.



Ainitze Agirrezabala

T

radizioak bizirik mantendu eta urteetan ikasitako euskal dantzak ondorengoei erakutsi asmoz, hogeitabost urtean musu-truk lanean aritu dira Mikel Larrañaga eta Begoña Aizpuru senar-emazteak.

Itsasi 1976ko udazkenean sortu zen. Urte batzuk lehenago, ordea, bazen herrian beste dantza talde bat, Oargi. “14 bat urte nituela hasi nintzen Oargin”, hasi da iraganera so, Begoña Aizpuru. “Mutilei Madalenako Pedro Etxeberria *Pedrotxok* erakusten zien dantzan, baina nesken dantzarik ez zekiela eta

guri erakustera Antonio Azpiazu *Aldako* azkoitiarra etortzen zen. *Aldakok* zekiena erakutsi zigunean –arku-dantza eta makil-dantza–, Donostiako Biozdun taldetik pare bat lagun hasi ziren etortzen dantzak –kontrapasa eta museta– irakastera. Normalean, Baigerako lehen solairuan entseatzen genuen, eta toki gehiago behar genuenean garai bateko Izarraitz frontoi irekira joaten ginen”.

Oargik bost bat urteko ibilbidea egin bazuen ere, “oso aurrera joan zen taldea” izan zela adierazi du Aizpuru: “Nire lehenbiziko

emanaldia herrian bertan izan zen, saninazio buelta horretan egiten ziren Euskal Jaietan. Pasakallea eta izaten ziren, eta afan handiarekin hartzen genuen egun hura”. Herritik kanpora egindako irteerak ere ondo gogoan ditu: “Donostian Konstituzio plazan eskaini genuen saio bat. Autobusean joan ginen eguna pasatzera”.

Ametsak betetzeko lanean

Oargi desegin zen, baina gustatzen zitzairen hura aurrera eramateko lanean jarraitu zuten

Aizpuruk eta Larrañagak: “Herrian talde bat sortzeko ametsa zuen nire senarrak. Hasieran nahikoa iloba bazituela eta haiekin osatu nahi zuen taldea. Baina, asmo hark huts egin eta seme zaharrenaren lagun koadrila bildu eta pixka bat era horretara sortu zen Itsasi”. Carasusanen lokal zaharra garbitu eta han ekin zion talde berriak.

Dantzak erakusten ez ezik, dantzariantzako trajeak josten lan handia egin du Itsasin Aizpuruk: “Ez dakit zenbaterainoko jostuna naizen, baina traje berriren bat josi behar zenean aurrea neronek egiten nuen, seme-alabentzat. Gero, traje hura etxez-etxe pasatzen genuen gainontzeko gurasoek euren seme-alabei josteko garaian eredu bezala erabili zezaten. Patroiak ateratzen edo tela ebakitzen Arantxa Sarasuak asko lagundu zidan. Tela erosteaz neu arduratzen nintzen. Donostira joan eta a zer metro pila erosten genuen! Irlandera trajea josi nuen aurrea; inude jantzia, gero; baita Biasteriko eta Erronkariko dantzak egiteko trajeak ere”.

25 urtean josi dituen trajeen artean maitasun handiena zeini dion galdetuta “ez dakit bada. Denei berdintsu”, erantzun du. “Traje berri bat josten aritzeak esan nahi zuen dantza berri bat zetorrela, eta, beraz, ilusioa harena zen”.

Hazten, hazten...

Aizpururen esanetan, “ume mordoia pasa da Itsasitik. Sortu berrikan kopuruz ez zebilen hainbeste ume, baina 1980-1981. urtean artzain-inudeen helduen taldea atera genuen, eta berehalaxe umeek ere bat egin zuten eta ordutik ume askok eman zuten izena kolpera. Urte hartan boom handia izan zen, eta ia 200 ume izatera iritsi ginen. Talde bakoitzean 20 lagunetik gora ume ziren, eta egunero hiru talde desberdinekin ordubeteko entseguak egiten genituen”.

Dantza erakusten, ia beti Itsasin sartuta, seme-alabek “nahikoa agoantatu” dutela dio: “Normalean, gizona edo ni, biotakoren bat beti egoten ginen etxean umeekin, baina bizi-bide hartara moldatzen ikasi egin behar izan



1. Begoña Aizpuru neska talde batekin, kanpora egindako irteera batean. 2. Dantza egitera Holandara ere joan ziren. 3. Zilarrezko ezteiak Olatzen ospatu zituzten meza batekin, eta meza ondorenean Itsasiko hainbatek dantza egin eta oroigarriak oparitu zizkien. 4. Itsasi Dantza Taldearen 25. urteurrenean omenaldia egin zieten Begoña Aizpuru eta Mikel Larrañagari. Argazkian, andre-gizonak seme-alabekin, errainarekin eta bilobarekin.

Pasadizo ugari

||| Musu-truk lanean aritu arren, bat baino gehiagok usteko zuen soldata jasotzen zutela. “Behin, emakume batek hala esan zion nire gizonari: ‘Ene, Mikel, zer familia duzu?’. Eta, Mikelek: ‘Semea eta bi alaba’. Emakumeak erantzun: ‘Ikusten zaitut dantzan erakustera joaten zarela eta, noski, guztiari heldu behar familia aurrera ateratzeko’. Nire senarrak hala esan ohi zuen: ‘Ez daki asko, sarritan geuk jarri behar izaten dugula dirua poltsikotik”.

Beste behin, emanaldi batera Lasartera joan, eta makil dantza egiteko makilak ahaztu zituztela kontatu du. “Noski, ez zegoen makilen bila Azpeitira joaterik, eta eskuekin egin behar izan genuen”.

dute. Horretan pazientzia handia eduki dute. Alaba txikiena umetatik hara eramaten genuen, eta han hazi genuela esan dezakegu. Hark dantza asko eta asko hantxe entseguak ikusten zegoela ikasi zituen”.

Urtean sei-zazpi irteera egiten zituzten Itsasiko umeekin, eta batera eta bestera ibiltzen ziren Begoña eta haren gizona, eta Mari-lolo Goenaga eta Pello. “Trukeak egiten genituen. Hemengo umeek dantza egiten zuten herriko umeen etxeetan bazkaltzen zuten, eta ondoren haiek bueltan hona etortzen zirenean hemengo etxeetan hartzen genituen”.

Itsasiko garaia “lan asko egindako urteak” izan dira Aizpururentzat. “Hainbeste urtean egindako lanak fruitua eman zuen, eta oraindik ere bizirik dirau. Poz horrek betetzen nau. Oroitzapen ederrak ditut”.*



TELEFONO ZENBAKIAK

TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Lantzen	85 11 00
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Zapo Txoko / GIB	15 71 61
INEM	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
Igerilekua	81 41 21
Ertzaintza-Azkoitia	08 37 80
Aitonena I	81 51 71
Aitonena II	81 23 89
Epaitegia	02 51 91
Ingurumen Etxea	81 24 48

OSASUNA

Anbulatorioa	02 54 00
Anbulator. larrialdiak	02 54 01
Eguneko zentroa	15 74 96
Asepeyo	81 44 00
Gurutze Gorria	85 32 97
DYA-Donostia	46 46 22

KOMUNIKABIDEAK

Uztarria	15 03 58
Hitza (Azpeitia)	81 38 41
Hitza (Zarautz)	89 00 17
Azpeitian Zer?	81 11 00
Berria	943 30 40 30
Gara	943 31 69 99
Noticias (berriemailea)	687 60 50 06
DV (berriemailea)	610 81 29 12
Argia	943 37 15 45
Nabarra	948 22 71 25
Arrate Irratia (berriemailea)	81 26 32
Loiola Herri Irratia	81 44 58
Euskadi Irratia	943 01 23 00
Erlo Telebista (Azpeitia)	81 53 35
Izarraitz Telebista	85 13 05
ETB	943 01 17 05

ALDERDI POLITIKOAK

EAJ	81 55 70
-----	----------

FARMAZIAK (MARTXOA)

EGUNEZ

1-8-11-15-23-28	2-9-16-24-29	3-10-17-21-26-27-30
Beristain (Azpeitia).	Alberdi (Azpeitia).	Eizagirre (Azpeitia).
943 811 949	943 815 974	943 811 274

GAUEZ

1-2-14-19-20	3-15-16-28	4-17-29-30
Azpiazu (Azkoitia).	Gisasola (Azkoitia).	Ruiz (Azkoitia).
943 852 989	943 851 235	943 851 966

LARRIALDIAK

112

ODOL-EMAILEAK

Martxoaren 30ean izango dute hitzordua, 18:00etatik 21:00etara, anbulatorioan.

Hautetsi Independentistak	15 72 00
EA	81 00 11
EB-Aralar	15 72 00

SINDIKATUAK

ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

KULTURA-EUSKARA

Euskara Patronatoa	81 45 18
Udal Euskaltegia	81 19 47
AEK	15 10 89
EHE	15 10 89
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	81 65 08
Kontseilua	943 59 12 00
Bai Euskarari	902 43 00 26

IKASTETXEAK

Iraurgi	81 02 10
Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	81 63 80
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28

BESTERIK

UGLE (Urolako gay-lesbian.)	273 posta
Xoxoteko aterpea	58 10 07
Eregi Euskara-Komunikazio Zerbitzuak	
	943 08 06 88

ORDUTEGIAK

UDALETXEA || Asteguna: 09:00-13:30 || Larunbata: 09:00-13:00 **UDALTZAINGOA** || Egun osoz irekita egoten da **ANBULATEGIA** || Egun osoz irekita egoten da **IGERILEKUA** || Astelehena: 14:00-21:00 || Beste astegunak: 07:00-21:00 || Larunbata: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 || Igandea eta jai egunak: 09:00-13:00 || Kanpoko igerilekua: ekaina arte itxita **KIROLDEGIA** || Astegunak: 10:00-13:00, 15:00-21:00 || Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00 **UDAL LIBURUTEGIA** || Astegunak: 10:00-13:00, 16:00-20:00 || Larunbata: 10:00-13:00 || Udan, Gabonetan: 08:30-13:30 **ZAPO TXOKO** || Asteartea-ostirala: 17:00-20:30 || Larunbata: 16:00-20:30

ERABILGARRI



UDAL-AGIRITEGIA.

Udaleko agiritegi zerbitzua astelehenetik ostiralera egoten da zabalik, asteazkena izan ezik, 09:00etatik 14:00etara. Azken 700 urtetako dokumentuak bi gela desberdinetan dituzte gordeta.

GARRAIOA

ALDALUR	943 85 27 18
EUSKO TREN	902 54 32 10
GUIPUZCOANA	943 85 11 59
PESA	943 21 26 99
PIPER ELKARTEA	943 85 25 87
TAXIAK	943 81 13 07

|| autobusen ordutegi osoa:

www.uztarria.com/azpeitia/
autobusak

7-8-9-10-11-12-13-21-22-23-24-25-26-27
Alberdi (Azpeitia).
943 815 974

HUSSAIN AZAOM

maroko, tanger

“Egunero oroitzen naiz nire herriaz; sorterri-mina dut”

‘Bizitza hobeago’ baten bila duela hamar urte irten zuen Marokotik. Baina, krisia medio, lanik gabe dago.  Ainitze Agirrezabala

Noiztik bizi zara Azpeitian?

Lau urte daramatzat Azpeitian. Izatez Tangerkoa naiz, baina bizitza hobeago baten bila 1991. urtean atera nintzen handik. Azpeitira etorri aurretik Ermuan, Eibarren eta Azkoitian bizi izan naiz, baita Frantzian eta Holandan ere. Hasieran bakarrik irten nuen Marokotik, baina 2004ean familia ekarri nuen: emaztea eta hiru seme-alabak.

Lortu al duzu bizitza hobeago egitea?

Eraikuntzan egin izan dut lana, baina ekonomia krisia medio, 2005ean lanik gabe geratu nintzen. Ordutik, sei hilabetez baino ez dut lana egin, Udaleko brigadan, erreka bazterrak garbitzen. Orain langabezian nago, eta semeari Damaso auzoan duen harategian laguntzen diot, familia bisitatu asmoz egun batzuk pasatzera sorterri joana baita.

Zer botatzen duzu gehiena faltan?

Sorterri-mina dut. Ama, arrebak... Marokon ditut. Hango eta hemengo ohiturak ere oso ezberdinak dira. Hasieran dena gogorra egiten da, baina denborarekin ohitu egiten zara.

Zer moduz bizi zara Azpeitian?

Ahal den moduan. Alde guztietan daude per-

tsona onak eta txarrak, baina bai, baditugun lagun azpeitiarrak. Bizi behar dudana leku horretan ondo jan, ondo bizi eta lasaitasuna badago, ni gustura. Arazorik gabe bizi nahi dut, ez dut besterik nahi.

Sorterrira itzultzeko asmorik ba al duzu?

Ez dakit... Jaioterriaz egunero gogoratzen naiz, baina momentuz hemen gustura bizi gara. Bere garaian, Etxebeltz-lzarran babes ofizialeko etxebizitza eskuratzeko izena eman nuen, eta etxea egokitu zitzaidan zozketan, baina lanik gabe geratu nintzeneko uko egin behar izan nuen. Modu horretako suertea bizitzan behin izaten da, baina pasatzen utzi behar izan nuen. Hor ez dago atzera bueltarik.

Azpeitian bizi diren gainontzeko marokoarrekin ba al duzu harremanik?

Bai, noski. Argeliarrak, marokoarrak eta sahararrak Azkoitiko meskitan biltzen gara. Txilaba jantzi eta ostiral eguerdiro hara joaten naiz, errezatzera. Oso sinestunak gara; bizitza honetan zerbaitetan sinestu beharra dago.*



1. 3. Hussain Azaom semearen Damasoko harategian. 2. Mustapha harakina, Mohamed bezeroa eta Hussain.



Kaosa

Ez dakizu noiz hasi zen baina hor da eman dezagun larunbatean izan zela erosketak egitera bizikletan zindoazenean oinezko bidea pasatzen eta han non auto bat datorren geratuko dek bai zera oinezko bidean gora igo da espaloira zure bidean bizikleta galgatzen asmatu duzu nola edo hala euria ere bai ordea eta zilipurdika arrastaka joan zara benetako ziklistak tourrean erortzen diren bezala autoko tontopailazoa gutxi da zozergerl ume idiota gaizki-hazi okerrago hezi adinean gorako gizona ondo al hago galdetu dizu hanka bat autotik kanpo duela hi haiz hi kalamidadea infernuko su guztiak me-rezi dituk mila deabru gorri andreak jango ahal hau eta barruan gorde dituzu esango zenizkiokeen ezesateko beldurgarriak eta gorputza mailatuta minberatuta urratuak han eta hemen eta ez dakizu noiz hasi zen baina eman dezagun Надежда errusiako neska-ekin segitu zuela diskotekara joan dantzan hasi poltsa bertan eskura utzi baina hala ere deskuidu batean edo bitan edo dantzan gus-tura goxo ari zarenean egiten diren deskuidu handi horietako batean baten batek poltsa lapurtu ziotenean Надеждаk zer egin zuen eta zer egingo zuen jendeak egin ohi duena polizi etxera joan zipaio aluok eta joan zen eta nola dokumentazioa txartelak kondoiak ez zituen aipatu lapurtu zizkiotela esan zien larru-gorritan utzi zutela esateko posturan eta er-tzainek galdezka hasi zitzaizkion y tu que y como te llamas eta hau eta hura gaztelaniaz baina ez kalitatezko gaztelanian ere ze ez euskara eta ez beste hizkuntzarik daki itxuraz jende horrek eta galdezka hasi eta jabetu dira neska ilegal dagoela hemen eta hartu eta bera sartu dute zuloan lapurrarenak baz-ter utzita eta neska gajoa zepoan eta haren semea errusiatik bisitan etorri zitzaionak kar-tzelan ikusi du ama eta kaka zaharra mundu alu hau dena putakumez betea ez dakizu noiz hasi zen baina eman dezagun igandean hasi zela auzoek herri kontsulta antolatu eta egin



|||||||miel a. elustondo|||||

|||||Honek ez du izen bat
besterik eta da kaosa
eta ez dauka
bukatzeko itxurarik

dute ez dutelako hiriko parke handiengan geltoki intermodal barrabasi egiterik nahi eta egin dute herri kontsulta eta %99k ezetz parkea osorik nahi duela sartzeko alkate zo-zolistoak geltokia ipurtzulutik barrura

Bukatzeko itxurarik ez

astelehenean galdetu diote alkateari zer dioen herri kontsultaz eta haren emaitzaz au-zoek ez dutela parkea txikitzerik nahi herriare-nak ez beste interes diruzale batzuen intere-sak defenditzen dituen horrek esan du gas-teiztarren %1ek ere ez zuela botorik eman eta proiektuarekin aurrera segituko duela ez zuen esan baina beste leku guztietan aginta-riek egiten duten moduan parte hartzeari bu-ruzko bilerak gogoetak jardunaldiak topake-tak mintegiak hitzaldiak mintzaldiak tailerrak eratu bai baina jendeari kasurik egin ez eta oraindik ez dira lanean hasi parkean honek ez du izen bat besterik eta da kaosa eta ez dauka bukatzeko itxurarik✳



iberotarren plaza 4 behea
20730 azpeitia gipuzkoa
t. 943 81 44 50
f. 943 81 50 52

‘zure irribarra zaintzen dugu’

www.grupohorzkari.com



 **Tindategia
Sagarna**

- Berezitasuna lehorreko garbiketan
- Nordikoak, mantak, edredoak eta gortinen garbiketa berezia

Ildefonso Gurrutxaga, 3 • tel.: 943 02 66 81

 **MILAR LARRAMENDI**




ESKAINITZA BEREZIA
20 URTE INGURU IRAUNGO DUEN
ARROPA GARBIGAILUA, HILEAN 69,90 €*
BAKARRIK ORDAINDUTA *12 hilabetez

Miele

IKUS ITZAZU GURE ERAKUSKETAN. LIBURUTEGI ONDOAN

Milar Larramendi · Xabier Munibe, 11 · Julio Urkijo, 16 · Azkoitia · Tel. 943 85 18 97



Zure aukera, Ukabi Informatika
Zure aukera, Ukabi Informatika



Santi Lazkano Kirolak

udaberria uda 2011

Jose Artetxe, 1

Tel/Fax: 943 81 16 50